

1. Jarduera (taldeka)

Irakurketa prestatzea

- **Erranaldi hauek zure buruan irakur itzazu eta ezagutzen ez dituzun edo irakurtzeko zailak diren hitzak bil itzazu. Ikaskideen artean aipa itzazue, ea hitz berak diren.**

a-Haur baten erradiografian, hortz-erorkorrak betirakoetarik aise bereizten dira: hortz-erorkor bakoitzaren pean, betirako hortzaren oina (kimua) ageri da.

b-Fosilei esker badakigu gaur egungo bizidun guziak ez direla betidanikoak eta noiz agertu ziren ere bai. Bizia itsasoetan hasi zen bizidun mikroskopikoekin (bakterioak).

c-Jaten dituzun elikagaiek nahitaez bide inposatu bat segitzen dute: 8 metro luzeko digestio-hodia, ahoan hasten dena eta uzkie bururatzen.

d-Animalia arroltzetik sortzen da beti. Arroltze hori, emeak egin obulu baten eta arrak egin espermatozoide baten batzetik sortzen da.



Oroitu

Testua ozenki irakurri aitzin, **isilean** irakur ezazu lehen aldi batez. **Ezagutzen ez dituzun** edo **ahoskatzeko zailak** zaizkizun hitzak begizta itzazu, eta horrela ez zara oztopaturik geldituko ozenki irakurtzean. Hitz horiek **silabaz-silaba** deskonposa itzazu.

2. Jarduera (taldeka)

Hatsa menperatzea

- **Erranaldia irakur ezazu marra arrosen ondotik hatsa hartuz.**

Hosto baten gainean pausaturik, / salto egiteko prest / igel gazte berde bat bazen.

- **Erranaldia irakur ezazu. Non eman behar dira pausaldi marrak?**

Igel gosetia hosto zabal batean gainean jarri zen eta hortik urmaelaren gainetik lanjerraz ohartu gabe hegaldaka iragaten ziren intsektuak barrandatzen zituen.



Oroitu

Ozenki irakurtzen duzunean, **kakotx eta puntuak** balia itzazu hatsa hartzeko. Holakorik ez baldin bada, pausaguneak begizta itzazu. Arkatz batez markatzen ahal dituzu.

3. Jarduera (ikastalde osoa)

Interpretazioa lantzea

● Erranaldi bakoitzaren puntuazio ikur egokia hauta ezazu.

Zein erranalditan da botza altxatzen?

- a- Zer sorpresa bikaina...
- b- Noiz bururatuko duzu...
- c- Atera zaitez berehala ene ganberatik...
- d- Zinemara noa gaur...

● Doinu egokia hauta ezazu erranaldi hauek irakurtzeko: kezkatua, alaia edo nahigabetua

- a- Berantegi da, ez da gehiago etorriko orain.
- b- Ez dut gehiago ene zakurra atzematen!
- c- Laster ene urtebetetzea da, besta eginen dugu!



Oroitu

Ahotsaren **doinua alda** ezazu testu pasartearen arabera.

4. Jarduera (binaka)

Ozenki irakurtzea

● Binaka eman zaitezte eta elkarrizketa hau presta ezazue gelaren aitzinean irakurtzeko.

Egun horretan Irri Zaintzaileak negar zotin batzuk entzun zituen denda baten aurretik pasatzerakoan. Txapela ondo jarri eta dendara sartu zen.

- Zer gertatzen zaizu, dendari jauna? Zergatik zaude hain triste!
- Lapurreta egin didatelako! Horregatik!-eta negarrez segitu zuen.
- Lapurreta? Gure herrian lapurreta?-harritu zen Irri Zaintzailea.
- Bai jauna bai! Lapurreta!
- Eta zer ostu dizute?
- Eztia! Neukan ezti guztia!
- Eta dirua? Eta patatak? Eta sardina zaharrak?
- Ez, horrelakorik batere ez.



- Bah! Bah! Hori besterik ez bada!-hasi zen Irri Zaintzailea kontsolatzen-Hori ez da ezer, gizona! Pentsa lapur horrek beste gauza guziak ostu izan balizkizu! Pentsa nola egongo zinatekeen orduan!
- Okerrago, askoz ere okerrago-esan zuen dendariak malkoak xurgatuz.
- Bada, orduan ez jarri triste! Badakizu zein den nire lema: **Askozaz-ere-okerrago** egon arte, negarrik ez!

Bernardo Atxaga, Irri Zaintzailea
Kalakari III-erein